

B

BARREN

Lortu du Concepto Egilek

TOKIKOM



K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19 behea - Tel: 943 74 30 44 / 653 825 606

Uztailaren 1etik uztailaren 26ra ingeleseko ikastaroak goizez.

- Haur eta gazteentzako eskolak orokorrean.
- Laguntza eskolak: - Lehen hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa.
- Crambridge azterketen prestakuntza



CAMBRIDGE Unibertsitateko
Azterketetarako Batzordeko kidea ES438



♦ 2013/2014 ikasturterako matrikula zabalik.

♦ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.

♦ Cambridge azterketen prestakuntza: Young Learners, Ket, Pet, First Certificate, Advanced

♦ Laguntza eskolak: Lehen hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

♦ Helduentzako klase orokorrak

berriak 10 urte

zatoz gurekin ospatzera

Webgune berezia:
www.berria.info/berriataldea

Izan zaitez
berrialaguna



Antolatzailea: Laguntzailea:
berria hitza

berria
hamarnaka
kontatzeakoak gara

Maiatzak 31, Elgoibar



ANTZERKIA

'Zertarako hegoak'

Metrokoadroka sormen laborategia

20:30ean • Herriko Antzokian

Sareak auzoz:

- Interneten: www.berria.info/berriataldea
- Elgoibaren: Pita dintoa liburu dendan

Sareak egunean bertan: Herriko Antzokian

Sarrera: 5 € berrialagun harpidedunentzat
eta berrialagunentzat. Gainerakoentzat: 10 €

Oharra: Harpidedun edo BERRIALAGUN txartela eskustea ezinbestekoa izango da, eta txartel bakoitzarekin bi sarrera eskuratu ahal izango dira gehienez.

Babesleak:



LABORAL
kubxa

Irizar

Babesleak:



Elgoibarko
Udala



Miren Vives

Oraintxe bete berri da Maiatzak 15 mugimenduaren bigarren urteurrena. Jendea kalera atera zen Hessel-en *Haserretu zaitzete!* manifestua eskuan zuela, eta oraindik ere kalean darrai, egoera hobetu baino gehiago okertu egin delako. Eta horrek hiritarrok politikan daukagun erantzukizunari buruz pentsatzera narama ezinbestean. Testuinguruak telefilme txar baten trailerra dirudi: bankuek hiritarrok kaleratzen dituzte eta ustelkeri kasuek egunkarien azalak hartu dituzte; hezkuntza eta ongizatea dar-darka murrizketak direla eta; langabezia mamu ez ezik munstro izugarri bihurtu da. Superheroirik ezean gizartea bera ahaldundu da, suminduraz. Zer egin dezake ba?

Guzti honek gogora ekarri dit duela hamar urte guk geuk hasi genuen nolabaiteko abentura: Mendaroko Talde Independentearen eskutik Udalera iritsi ginen 2003ko maiatzean, zu alkate, ni hirigintzako arduradun. Informazioa eta parte-hartzea izan genituen helburu, bigarrena ezinezkoa baita lehenengo hori gabe. Hala ere, inor gutxi zegoen informazio hori erabiltzeko prest: parte-hartzea lortu genuen, bai, baina ez uste genuen beste. Agian jendeak ez du “politikan” parte hartu nahi. Agian ez genuen jendearekin ondo konektatu.

“Sistema alda al daiteke sistemaz kanpotik?”

Hiritarrok, agintariak lau urtean behin aukeratzeaz gain, hauek beraien lana egiten dutela ziurtatu behar dugu: geuretzat lanean ari dira! Baina horretarako tresna egokiak behar ditugu, parte-hartzea bermatu eta hiritar kontzientzia sustatzeko. Ez naiz azaleko parte-hartze prozesu kosmetiko-ri buruz ari, udal-aurrekontuetan parte hartzeko tresnei buruz ari naiz, adibidez. Prest al gaude botere horretaz jabetzeko? Sistema alda al daiteke sistemaz kanpotik? Edo eta Troiako zaldian ezkutatu beharrean gaude? Galdera gehiegi, Esti.



Esti Gonzalez

Bai, Miren, galdera asko eta erantzun nahasiak nire buruan. Ez daukat batere argi sistema aldatzeko sistemaren parte izan behar dugun ala ez.

Duela 10 urte, adibidez, ezinbestekoa egin zitzaigun sistema barrura salto egitea. Herritarren artean zegoen iritziari entzungor baitzeuden orduko agintariak. Taldelana nagusitu zen gure artean, eta guztion inplikazio eta egin nahiak gure helburu nagusienak betearazi zizkigun. Zerbait biziki amesteak, errealitate bilakatu daitekeela ere irakatsi zigun.

Dena den, azken egunotan Maiatzak 15 mugimenduaren hainbat jarraitzaileen testigantzak entzun ditut, eta argi daukate politika egiteko ez dela derrigorrezkoa parlamentuan egotea, politika kalean ere egiten dela alegia. Gizarte mugimenduak dira politika, eta hauen lanaren fruitu bezala jaiotzen dira gizartea eraldatzeko beharrezkoak diren proposamenak, lege aldaketa proposamenak adibidez. Hiritar horiek aukeratu dituzte politikoak modu demokratiko batean, beraien ordezkari izateko asmoarekin, baina hortxe dator gakoa: behin boterea lortuta, politikariek ez dutela inoren ordezkari izan nahi, beraien buruaren interesen alde egiten dute, hiritarren eskaerak alde batera utzita.

“Politika egiteko ez da derrigorrezkoa parlamentuan egotea, kalean ere egiten da”

Horregaitik, politika parlamentutik kanpo ere egin ahal izateko, politikoak hezitzea eta kontrolatzeaz gain, hiritarrek ere hezita eta informatuta egon behar dute, eta lanerako gogoarekin, noski.

Azkenik, esan nahiko nuke, azken urteei begira, gizarte geroz eta indibidualago batean murgildurik gaudela, eta zerbaitek zuzenean afektatzen gaituenean bakarrik erreazionatzen dugula. Testuinguru honetan Maiatzak 15 mugimendua leihotik sartu den aire freskoa bezalakoa da. Jendea gogaituta dago eta aldaketak nahi ditu, inflexio puntu bat izango ote da? Hala bedi. Horrek aurretik lan asko dugula esan nahi du eta!

Jarri ezazu zure publizitatea
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B
BARREN
astekarian
943 744 112

Juan Jimenez Peruko lehen ministroak IMH bisitatu du

Peru eta Euskal Herriaren arteko lankidetzaz sendotu nahi dute



Ezkerretik hasita bigarrena da Juan Jimenez Mayor.

Juan Jimenez Mayor Peruko lehen ministroak IMH bisitatu zuen martitzenean, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako ekintzen barruan. Erreminta makinaren institutuko azpiegiturak ezagutzearekin batera, ikastetxeen eta enpresen arteko harremanei buruzko informazioa jaso zuen ministroak.

Bi eguneko egonaldia egin dute peruarrek Euskal Herrian, eta bisita horretan euskal Herriko erakunde politiko eta ekonomiko gorenekin batu zen Jimenez Mayor. Iñigo Urkullu lehendakariak Ajuria Enean hartu zituen Peruko ordezkariak martitzen goizean, eta gero, Arabako Parke Teknologikora joan ziren, Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea ezagutzeko. Hego Ameriketako herrialde handien artean hirugarrena da Peru, Brasil eta Argentinaren atzetik, eta hedapen-prozesuan dago. Hango ekonomia inbertsio aukera handiak eskaintzen ditu hainbat sektoretan, eta bi herrialdeen arteko lankidetzaz sendotzea izan da bidaiaren helburua.

Kiribil Maalako parkera etorriko da gaur

Kalegoen Plazara beharrezan Maalako parkean jarritako karpas etorriko da gaur Kiribil, 17:30ean. Kirola izango da gaurko gaia. 2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrak eta haien guraso, aitona-amona, osaba-izeba eta bestelako lagunak gonbidatu dituzte ekitaldira Elgoibarko Izarraren Atxutxiamai-ka aisialdi taldekoek.

Euskaraz ez dakiten gurasoentzako kafe-tertulia

Euskaraz ez dakiten gurasoentzako kafe-tertulia antolatu du Elgoibarko Izarra kultur elkarteak ekainaren 4rako. Euskaraz ez dakitenek seme-alabei eskolako lanetan nola lagundu aztertuko dute kafe-tertulia horretan. Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan izango da, 18:30ean. Informazio gehiagorako: www.elgoibarkoizarra.com.

Egoitzan egiten ari diren greba dela-eta, egoiliarrek ordaintzen dituzten kuotetan murrizketak egitea erabaki du San Lazaro egoitzak

Alfredo Etxeberria San Lazaro egoitzaren presidentea jakinarazi du egoiliarrek ordaintzen dituzten kuotetan murrizketak aplikatuko dituztela, egoitzako langileek egiten ari diren grebak zerbitzuen murriztea ekarri duelako. Gipuzkoako Foru Aldundiak esana zuen langileei grebatik ordainduko ez dien soldataren zatia deskontatu egingo zuela adinekoen egoitzak kudeatzen dituzten enpresei hilero ordaintzen dien tarifatik. Horri erantzutera dator orain San Lazaro egoitzakoen prentsa oharra. Idatzi horrek dio apirilaren 26an gutun bat bidali zutela Foru Aldundira, egoiliarrek greba egunei zegoen ekarpen osoa egin behar zuten edo eskaini gabeko zerbitzuen parte proportzionala kendu behar zuten galdetzeko. Itxuraz, baina, ez dute oraindik erantzunik jaso Foru Aldunditik, eta ondorioz zera erabaki dute: Diputazioak San Lazaro Egoitzari aplikatzen dion murrizketa horren arabera apli-

katzea egoiliarrek ordaintzen dituzten kuotei.

Prentsa ohar berean Elgoibarko Udalak dio "lan gatazka konpontze aldera" prest dagoela hitzarmena gauzatu ahal izateko egokitzen jartzen den zenbatekoa jartzeko, beti ere gero Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbateko hori bere gain hartzen badu, Elgoibarko Udalaren aldeko zor gisa. Hau da, prest dago diru hori jartzeko, beti ere zenbateko hori ez badute gero San Lazaro Egoitzaren defizit gisa hartzen. Izan ere, 2014an Diputazioaren esku gelditu beharko liriteke berez adinekoentzako zentroak, baina horretarako baldintza bat jartzen du Foru Aldundiak: zorrik ez izatea [Elgoibarko Udalak emandako datuen arabera, gaur gaurkoz San Lazaro egoitzak ez dauka zorrik]. Lerro hauek idazteko unean, Diputazioaren erantzunaren zain zeuden San Lazaroakoak.

Izena **Juan Jose Arrillaga**



Juan Jose Arrillaga Irusta joan zen maiatzaren 21ean hil zen Mexikon, 78 urte zituela. Elgoibartar "peto-pettoa" zen, Jesus Bilbaoren hitzetan, gizon ekintzailea eta lan handia egin zuena enpresa munduan. Mexikon hainbat enpresaren sorreran parte hartu zuen eta ardura handiko karguak bete zituen han. Jesus Bilbaok dio lanera Mexikora joandako langile elgoibartarrei ahal zuen guztian lagundu ziela beti Juan Jose Arrillagak. Mexikon, hango euskal etxeko lehendakari ere izan zen, besteak beste.

Kultura **Elgoibartarrak Olatu Talkan**

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek Olatu Talka jaialdiaren barruan egin den akordeio-joleen topaketan parte hartu zuten joan zen domekan. Donostia erre zuteneko 200. urteurrenaren harira, kontzertua eskaini zuten Zubietan beste hainbat ikaslerekin batera, eta izugarri esperientzia polita izan dela azaldu dute.



Irudia **Pleno txikia**



Agenda 21 egitasmoaren barruan, pleno txikiak egin dituzte astean Elgoibarren eta Mendaron, Debegesak antolatuta. Martitzen eguerdian batu ziren Elgoibar Ikastolakoak eta Herri Eskolakoak udal agintariekin euren kezken eta iradokizunen berri emateko. Mendaron, berriz, asteazken goizean egin zuten pleno txikia.

Belaustegi jatetxeko Josu Mugerza, 'Txoriene' telebista saioan

Elgoibarko Belaustegi baserri-jatetxeko nagusiak, Josu Mugerzak, Xuban Intxaustik gidatzen duen *Txoriene* telebista saioan parte hartu du aste osoan. Munduko hainbat tokitan ibilitakoa da sukaldari elgoibartarra, eta han eta hemen ikasitako platerak egiten erakutsi du sukaldaritzari buruzko saio honetan.

San Bartolome jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa

San Bartolome jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udaleko Kultura Batzordeak, eta horrekin batera, baita haur kartel lehiaketa ere. Lehenengoa 18 urtez gorakoentzako da, eta egile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu uztailaren 5erako, Kultur Etxean. Lanean *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2013* jarri beharko du eta irabazleak 700 euro eskuratuko ditu. Era berean, San Bartolome jaitarako haurren kartel lehiaketa ere antolatu du, 18 urtez beherako elgoibartarrentzat. Nagusienean moduan, *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2013* ageri beharko da lanetan derrigor, eta uztailaren 5era arteko epea dago lanak aurkezteko. Guztira sei sari banatuko dituzte. Informazio gehiagorako: 943 742 158.

Ekingune aurkeztuko dute ekainaren 4an

Ekingune, Debarrenako ekintzaileen arteko lankidetzeta eta sustatzeko elkarteak, aurkeztuko dute ekainaren 4an, 19:00etan, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Enpresa sortu berrien beharrazinari erantzuna emateko sortu zuten Ekingune. Elkarte "pribatu, independente eta irabazi asmorik gabekoa" da, eta Debarrenako ekintzaileen interes ekonomikoak eta sozialak defenditzen ditu.

SIGMA

HERRI TXIKI BAT ELGOIBARREN



laz egin zituen 50 urte Sigmako eskolak, eta horren harira, ospakizun jaia antolatu dute uztailaren 25erako. Egun berezia da uztailaren 25a Sigmako auzokideentzat, izan ere, egun horretan ospatzen baitziren aintzina auzoko festak. Hori dela-eta, Santiago Egunean batuko dira Sigmako eskolan ikasi zuten auzotarrak eta gaur egun auzoan bizi diren jubilaetuak. Horrez gain, Olaso, Lauko eta Aitz Bizkar baserrietako familiak ere gonbidatu dituzte, auzoari oso lotuta bizi izan direlako beti. 200 bat lagun elkartuko direla aurreikusten dute antolatzaileek. Hamar laguneko talde batek dihardu antolakuntzan, eta horietako hirurekin batu da **BARREN: Modesto Cid, Jose Inazio Leniz eta Martin Dominguez.**

Ainhoa Andonegi

1 920an sortu zuen Eulogio Estarta elgoibartarrak Estarta y Ecenarro enpresa. Erreminta makinak eta Sigma josteko makinak egiten zituzten, eta azken produktu horri lotuta, Sigma izena hartu zuen enpresak herrian. Eta enpresari lotuta jaio zen Eulogio Estarta *Sigma* auzoa bera ere. Enpresako langileentzako etxeak eraiki zituzten enpresatik Eibar alderantz zegoen berdegune batean, ekonomatoak jarri zizkieten erosketak egiteko; bata, auzoan bertan eta, bestea, Antonio Arriaga kalean, eliza zeukaten, frontoia, soziedadea eta baita eskola ere. 162 bat etxetan, 500 lagunetik gora bizi ziren. Azken batean, herri txiki bat zen orduko Sigma Elgoibar barruan. Modesto Cid, Jose Inazio Leniz eta Martin Dominguez auzotarrek auzo handi bat zela uste zuten umeak zirenean, eta gaur egun auzo txikia iruditzen zaie. Detalle bat nabarmendu du Modestok: “Sigmako eskolan ikasi zutenekin 457 laguneko zerrenda osatu dugu, eta taldeko erretratua ateratzeko eliza alboko eskailerak nituen gogoan. Aste honetan joan naiz ingurua begiratzera, eta han ez garela

ehun lagun ere kabitzen konturatu naiz. Lehen dena handia ikusten nuen, baina leku txikia dela konturatu naiz”.

Sigman baina, “dena” zeukatela, eta herrira jaisteko beharrik ere ez zuten izaten. Herrira joate hori “abentura” bat zela diote: “Adin desberdinetako auzotarrak batzen ginen, denok batera kalerara joateko”. Auzoko telebista bakarra eskolako lokalean zegoen, eta hantxe batzen ziren denak telebista ikusteko. Ping-pong mahai eta beste hainbat jolas ere bazituzten, eta 14 urte ingurura arte ez zuten herrirako biderik hartzen. Garai hartan Sigma herri-tik oso urrun zegoen, baina orain gertu ikusten dute.

Enpresaren garrantzia

Sigma enpresa oso garrantzitsua izan zen Elgoibarren. Ia 1.400 langile izatera iritsi zen, hamar-hamabi bat mila biztanleko herrian: “Eta txanda bakarrean! Langile guztiak batera joaten ziren lanera eta denak batera irteten ziren. Langile marea hura sekulakoa izaten zen”. Sigmako sirenak herritarren erritmoa markatzen duela nabarmendu dute el-



karrizketatuek, eta jende askok hari esker jakiten omen zuen ordua: “Eskolara berandu edo garaiz gindoazen ere sirena hari esker jakiten genuen”, gogoratu dute. Enpresaren gainbehera iritsi zenean aurrejubilazioekin hasi ziren lehenengo, eta langileria murriztu zuten gero. Hala ere, ez zen nahikoa izan eta 90eko hamarkadaren hasieran itxi zuten betirako enpresa. “Sigmarik gabe Elgoibar desberdina izango litzateke”.

Ospakizuna, uztailaren 25ean

1962ko irailean inauguratu zuten Sigmako eskola. 4. mailara arteko ikasketak eskaintzen zituzten han, eta auzoko ume gehienek han egiten zituzten oinarrizko ikasketak. “*Cara al Sol* abesten genuen egunero, eta Espainiako bandera altxatzen genuen klasea hasi aurretik”. Baina auzoko ereserkia ere bazuten: “Letra frankista dauka, baina sari abesten genuen hura ere. Nik buruz dakit”, esan du Modestok. 10-11 urterekin Pilarrera, Urazandiko eskolara edo Pedro Muguruza ikastetxera joaten ziren. Beste batzuk, Sigma enpresan bertan zegoen eskolarako bidea ere hartu zuten, ofizioa ikasi eta enpresan lan egiteko. “Sigmako auzotarrentzat aukera handia zegoen, eta auzoko jende gehiena Sigman bertan hasten zen lanean”. 1983an itxi zituzten betirako eskolako ateak, eta gaur egun auzotarren aisialdirako erabiltzen dute lokal hura.

Iaz eskolaren inaugurazioaren 50. urteurrena izan zela aitzaki hartuta ospakizun bazkari bat egiteko batuko dira auzotarrak uztailaren 25ean. Egun berezia da uztailaren 25a Sigmakoentzat, izan ere, garai batean auzoko festak Santiago Jaiak izaten ziren-eta. “Festa handiak izaten genituen Sigman. Asto-lasterketak, umeentzako jolasak... Itoitz edo Egan bezalako taldeek ere jo izan dute Sigman”. Baina urte batean, Sigmako frontoia ETArean aldeko pintadaz beteta agertu zen, eta Guardia Zibilak esan zuen hura garbitu ezean, festak bertan behera lagako zituztela. Inork ez zuen frontoia garbitu, eta hura izan zen Sigmako jaien azkena. Pilota jaialdiari eutsi diote gaur egunera arte, eta horren bueltan antolatu dute auzotarren ospakizuna.



EGITARUA (Uztailak 25)

- 11:00 Elizan batuko dira, auzotarrei omenaldia egiteko
- Jarraian, auzoko argazki zaharren bideo emanaldia
- Segidan, luntxa eta taldeko argazkia ateratzea
- Ondoren, pilota partidak ikustera joango dira
- 14:30, bazkaria, Karakate jatetxean

Interesatuak 45 euro sartu beharko dituzte, La Caixako kontu korrante honetan: 2100 4168 71 2100263203. Izena emateko azken eguna: ekainak 3

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50 ANI
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA



ELGOIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

■ GUTUNAK

Askatasuna behar dugu

Modu interesatu batean, batzuek ahaztu nahi dute eta ahaztarazi nahi digute euskal gizarteak eta espainiarrak ETArek terrorismoa jasan duela 50 urtez.

Modu interesatu batean, batzuek ahaztu nahi dute eta ahaztarazi nahi digute orain 45 urte jaino zen demokraziak amnistiari heltzeko eta bide berri bat hasteko aukera eman zuela.

Modu interesatu batean, batzuek ahaztu nahi dute eta ahaztarazi nahi digute terroristek eta haiek babesten dituztenek nahiago izan zutela hiltzen, mehatxatzen eta xantaia egiten jarraitu.

Eta orain, gaur, indarkeriaren alde egin zuten hauek, ia mila pertsona (tartean hainbat ume) hil dituzten hauek, gure askatasuna lapurtu duten hauek, egindakoagatik ordaindu behar dute. Terrorismoaren biktimei zor diegu.

ETA behin betiko desagertu behar da. Armak entregatu behar ditu eta justiziaren aginduetara jarri, behingoz, euskal herritarrok aske eta beldurrik gabe bizi gaitezten. Eta ez dugu etsiko, hori lortu arte.

Egiten dituzten adierazpenekin eta dituzten planekin, batzuek ahaztu nahi dute eta ahaztuarazi nahi digute euskal herritarrok eta espainiarrok pairatu dugun guztia. Egia manipulatu, memoriari uko eginez eta zigorgabetasuna bilatzeko eta urteetako hilketa, mehatxu, xantaia eta indarkeria justifikatzeko ahaleginean duintasuna galduz.

Alderdi popularrek ez dugu hori baimendu. Egiaren, memoriaren, duintasunaren eta justiziaren aldeko borrokan ez diegu hutsik egingo terrorismoaren biktimei. Ez dugu egingo.

Javier Nuñez,

Elgoibarko Alderdi Popularreko bozeramailea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar ditugu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.

OHARRA

Elgoibarko Izarrako langileek bat egin zuten atzorako deitutako grebarekin, eta horrenbestez, egun bat aurretik bidali genuen alea inprentara. Horregatik, pliego bat gutxiago dauka aste honetako **BARREN**ek.

Trinitateetako argazki bilduma

Festa giroa izan da nagusi asteburuan Elgoibarren eta Mendaron. Trinitate jaiak ospatu dituzte batean zein bestean, zapatutik astelehenera bitartean. Herri kirolak, danbor-hotsak, bertso saioak, omenaldiak, azoka, dantza... Egitarau zabala prestatu zuten antolatzaileek, eta giro polita izan zen herriko kaleetan. Orri hauetan jaso ditugu asteburuko hainbat irudi. Erretratu gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoibARREN.net.



Javier Arrizabalaga 'Belarreta' eta Ramon Larrañaga 'Aldapa' omendu zituzten, auzo-alkate izan direlako eta baserritarren alde eginiko lanagatik.



Jende asko gerturatu zen sagardoa dastatzera.



Jon Larrañaga eta Eneritz Kaltzakorta trontzan.



Jose Mari Olasagasti, aizkoran.



Jose Mari Esnaolak aho zabalik utzi zuen plaza.



Aimar Irigoien, ahalegin betean.



Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolakoen saioa, Kalegoen plazan.



Mutikoak



Julian lantzi tu zuen Elgo



Danbor joleak, adi-adi, aginduen zain.

Domeka goizean umeek hartu zuten nagusien lekukoa.

Elgoibarko Izarra omendu zuten Nagusien Danborradan, elkartearen 50. urteurrenagatik. Ane Odria eta Iñaki Kondek jaso zuten saria.




Kantinerak eta inudeak, umeen danborrada hasteko zain.

23:30ean hasi zen soldaduen desfilea.



Aurtengo jera eta emaztea





lantzan.



Xabier Isasti artisau azokan, egurrezko lanak erakusten.



Elgoibarko baserrietako animaliek ikusmina sortu zuten.



Bost baietz' lehiaketarako saioa grabatzen.



Euskal Kirolak izan ziren Nagusien Danborradako gaia.



Pepito kilkerra, umeen danborradako karrozan.



alala eta haren emaztea, orain arteko jeneral kin.



200 bat lagunek hartu zuten parte Nagusien Danborradan.



Mendaroko abesbatzakoak kantuan, Juanito Loiola eta Sabin Longarteri egindako omenaldian.

Juanito Loiolaren biloba Janire Elordi eta Maialen Olazabal omenduei aureskua dantzatzen.



Omenduek eta omentzera etorritakoak elkarrekin.

Bigarren Mailara igo da Concepto Egile areto futbol taldea

Concepto Egile areto futbol taldeak Bigarren Mailara igotzea lortu du. 6-4 irabazi zuen zapatuan itzulerako partida, Bartzelonako Montcada taldearen kontra, eta joaneko partida ere 2-3ko emaitzaz irabazi zutenez, Bigarren Mailan jokatzeko aukera izango dute datorren denboraldian. Kataluniarrak baino gehiago izan ziren elgoibartarrak kantuan. Bartzelonatik gol bateko aldea ekarri zuten etxe-koek, baina errentari eustera baino aldea handitzera irten ziren zapatuko partidari. Harmailak jendez gainezka zeuden, eta epaileak partida amaitutzat eman zuenean festa hasi zen Olaizaga kiroldegian. Alabaina, ekonomiak izango du azken hitza, ikusteko dago-eta Debarbarrena kluba gai izango den maila bat gorago jokatzeko aurrekontua osatzeko. Argazki gehiago eta bideoak: www.elgoibarren.net



Maite Maiora, lehenengo emakume euskalduna Aizkorriko maratoian

Bosgarren egin du 4:57:42ko denborarekin



Sekulako denboraldia ari da egiten Maite Maiora (Mendaro, 1980), eta domekan Aizkorriko maratoian lortutako bosgarren postua da horren azkeneko adibidea. Aizkorriko maratoia behin baino gehiagotan irabazi duen Emanuela Brizioaren atzetik helmugaratu zen, eta bera izan zen Zegamara iritsi zen aurreneko emakumezko euskalduna. 4:57:42ko denboran osatu zuen 42 kilometroko ibilbidea. Podiuma Emilie Fosberg suediarrek (4:48:12), Nuria Picas kataluniarrek (4:49:55) eta Stevie Kremer estatubatuarrek (4:49:58) osatu zuten, emakumezkoetan.

Gizonetzkoetan, berriz, Kilian Jornet nagusitu zen, 3:54:50ko denbora eginda. Atzetik sartu ziren Mendaroko estreinako mendi lasterketa irabazi zuen Luis Alberto Hernando (3:54:50) eta Tadei Pivk (3:59:07).

Gure beste ordezkariak

Maite Maioraren atzetik Manolo Ramos elgoibartarrak egin zuen denborarik onena gure ordezkarien artean. 182. postuan amaitu zuen, 5:34:33ko denbora eginda. Beste bost lagunek ere parte hartu zuten: Arkaitz Iruretak (6:25:38), Gotzon Zulaikak (6:42:48), Aitor Ibabek (7:13:09), Jon Peli Uriguenek (7:21:55). Iñigo Larizek ere parte hartu zuen, baina Aizkorrik utzi zuen proba. Ez zuen gorputzaldi ona izan. Bere esanetan, "hustuta eta mareatuta" ailegatu zen Aizkorrira, eta erretiratzea erabaki zuen.

Lagunak taldekoek zaila dute Herriarteko txapelketan aurrera egiteko

Final zortzirenetarako joaneko partidak jokatu zituzten joan zen asteburuan As-tigarragan. Hiru partida izan zituzten guztira, eta hirurak galdu zituzten elgoibartarrek, 22-1/ 22-16 eta 22-10eko emaitzekin. Horrenbestez, zaila jarri zaie oso txapelketan aurrera egitea. Itzuliko partidak jokatu dituzte gaur Elgoibarren, baina asko aldatu behar dira gauzak final-laurdenetarako sailkatu ahal izateko.



Dani Arenas garaile Galizian

Penintsula iparraldeko kulturismo txapelketa irabazi du Dani Arenas elgoibartarrak, taila txiki-koen sailean. Galizian jokatu zuten txapelketa, eta lortutako emaitzarekin oso gustura itzuli dela adierazi du Arenasek berak, Facebookeko bere perfillean.

Areto futbolekoen jai asteburuen

CD Debarrena areto futbolekoek Sumando-Gehituz jardunaldiak egingo dituzte ekainaren 7tik 9ra. Gaur zortzirako xake partida azkarrak antolatu dituzte (19:30), eta lehenengo sailkatzen diren biek bina lagunentzako afora irabaziko dute Maalan jarriko duten karpan. Ekainaren 3a arteko epea jarri dute izena emateko. Horretarako helbide honetara idatzi behar da: delegado@debarrenafs.org.

Viento Sur taldeak ez du mailaz igotzerik lortu

Asteburuan Ruibal Alquiler de Vehiculos talde eibartarraren kontra 65 eta 73ko emaitzaz irabazi arren, Viento Sur saskibaloitaldeak ez du mailaz igotzerik lortu. Izan ere, aurrez etxean jokatu zuten joaneko partidaren hamabost puntuko aldea atera zieten eibartarrek.

Murgil eskubaloi taldeak Euskadiko txapelketa irabazi du infantiletan

Liga txapelketa guztian ez dute partida bat bera ere galdu

Sanloko Murgil taldeak Euskadiko Eskubaloi Txapelketa jokatu zuen asteburuan Durangon, eta Elgoibarko neskek altxatu zuten txapel-dunaren kopa. Larunbat goizean, erraz irabazi zuten Arabako taldearen kontra partida, 5-33ko emaitzarekin. Arratsaldean Bizkaiko taldearen kontra jokatu zuten, eta urduri irten ziren elgoibartarrak kantxara. Galtzen hasi ziren arren, markagailuari buelta ematea lortu zuten, eta 23-20ko emaitzarekin bukatu zuten partida. Murgil taldeak amaiera borobila eman dio hortaz denboraldiari. Liga txapelketan partida bat bera ere ez dute galdu elgoibartarrek, eta gainera, Euskadiko txapela jantzi dute.



bestalde, Kopako azken partida jokatu du bihar Aloña Mendiren kontra, eta irabazten badute, Kopa Txapelketa irabaziko dute elgoibartarrek. 17:00etan hasiko da partida, Olaizaga kiroldegian.

Gipuzkoako Kopa

Tecnifuelle senior nesken taldeak,

Ehun lehenengoan artean amaitu du Ibon Gabilondok Lanzaroteko Ironman proba



Lanzaroteko Ironman proban hartu zuen parte Ibon Gabilondo elgoibartarrak, eta 81. postuan sailkatu zen. 3,8 kilometro igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika egin behar izan zituzten parte hartzaileek, eta Ibon Gabilondok 10:21:53 denbora behar izan zuen proba amaitzeko. Elgoibartarrentzat estreinako Ironmana izan zen. Azken proban, maratoian, "mamu guztiak" ikusi zituela aitortu du Gabilondok, baina azken Hamabi kilometroetan sufritzen jakin zuen, eta bere estreinako ironmana bukatu zuen.

EMAITZAK

FUTBOLA

Intxaundi 1 – Elgoibar 2 (Neskak)

Elgoibar 1 – Beti Gazte 2 (Jub.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 6 – Montcada 4 (2B)

ESKUBALOIA

Eibar Eskubaloia 23 – Alcorta Elg. 22 (Sen. mut.)

Urrietako 11 – Tecnifuelle Elg. 46 (Sen. neska)

Usurbil 29 – Astigarraga Elg. 22 (Kad. neska)

Pneumax Elg. 29 – Pulpo 24 (Inf. neska)

Mendebaldea 5 – Murgi Elg. 32 (Kad. neska)

Murgil Elg. 23 – Basauri 20 (Inf. mut.)

Tolosa 23 – Deca Elg. 21 (Inf. mut.)

ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Astigarraga 22 – Elgoibar 1 (Kad.)

Astigarraga 22 – Elgoibar 16 (Jub.)

Astigarraga 22 – Elgoibar 10 (Nag.)

Debarroko Txapelketa

Arrasate 22 – Deba 9 (Kad.)

Soraluze 22 – Bergara 16 (Jub.)

Soraluze 22 – Arrasate 7 (Nag.)

AGENDA

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 1

17:00 Tecnifuelle Elg. – Aloña Mendi (Sen. neska)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 31

19:30 Lagunak – Astigarraga (Herriartekoa)

Zapatua, 1

11:00 Lagunak – Aretxabaleta (Udaberri Txap.)

Alex Txikon mendizalea Herriko Antzokian

Alex Txikon mendizaleak *Bajo 0* izeneko dokumentala aurkeztuko du ekainaren 6an, Herriko Antzokian. Lhotseko gailurretik etorri berritan, Gashembrun lera eginiko saiakerari buruzko filma ekarriko du Elgoibarrera. Arnaldoren aldeko herri plataformak eta Morkaikok antolatuko dute ekitaldia. 21:30ean hasiko da.

CD Elgoibarko neskek Kopako finala jokatuko dute

CD Elgoibarko neskek Kopako finala jokatuko dute bihar Mutrikuko taldearen kontra. Partida Azkoitiko San Juan futbol zelaian izango da, bihar, 16:30etik aurrera.

Mintza Eguna ospatuko dute bihar Elgoibarren hango eta hemengo dozenaka euskaltzalek

200 lagun inguruk eman dute izena Maalan egingo duten herri bazkarirako

Mintza Eguna ospatuko dute bihar Elgoibarren dozenaka eta dozenaka euskaltzalek. Urtean behingo jaia da Mintza Eguna eta aurten, Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 50. urteurrena ospatzen duela-eta, Elgoibarren ospatuko dute. Egun osoko egitaraua antolatu dute. 11:00etan egingo diete ongi-etorria kanpotik datozen mintzalagunei, Maalako parkean, eta ordu horretan tokatzen den legez, hamaiketako ere egingo dute han bertan. Ondoren, 12:00ean ibilaldi gidatu bat izango da Elgoibarren barrena, Pello Arrieta historialariarekin. 13:30ean kalejira hasiko dute, dultzaineroekin, eta Maalako parkean elkartuko dira berriro, elkarrekin bazkaltzeko. Guztira, 200 bat lagun daude bazkaritarako izena emanda.

Urtero legez, sari banaketa ere izango da, 16:30ean. Sei sari ba-

natuko dituzte, eta horietako bat Elgoibarko Izarra kultur elkarteak jasoko du, Elgoibar euskaldunago egiteko egindako ahaleginarengatik. Gainerako sarituak honako hauek izango dira: Iñaki Muniategi berbalagun getxoztarra, Jesus Mendia mintzaki iruñearra, David Kerthoff eta Cristina Buizer herbehereetan jaio eta Bergaran bizi den bikotea, iazko abuztuan hil zen Arrate Berrizbeitia berbalagun eibartarra (amak jasoko du saria), eta Donostiako Bagera elkarteak. Euskararen alde egindako ahaleginarengatik nabarmendu dituzte guztiak, euskarari mingain gehiago eta espazio berriak emateko egindako ahaleginarengatik.

Sari banaketaren ondoren, 17:30etatik atzera, erromeria izango da. Mp5 talde eibartarrak izango du bazkaritara nahiz bazkalostera bertako euskaltzaleak dantzan jartzeko ardura.

‘Zertarako hegoak?’ antzezlanaren eskainiko dute gaur Elgoibarren, ‘BERRIA’-ren 10. urtemugaren harira



BERRIA egunkariak 10 urte beteko ditu ekainaren 21ean, eta urteurrena ospatzeko hainbat emanaldi ari dira antolatzen Euskal Herri osoan. Hala, urrutira joan gabe, euskarazko prentsari sustengua adierazteko aukera ezinhobea izango dute gaur hala nahi duten guztiak. Izan ere, Metrokoadroka kolektiboaren *Zertarako hegoak?* antzezlanaren ikusteko aukera izango da gaur Herriko Antzokian. Norbanako orok duen super botereaz ariko dira antzezlaneko bost aktoreak: Ainhoa Alberdi, Amaia Corral, Iñigo Ortega, Iraia Elias eta Joseba Roldan.

Sarrerak www.berria.info/berriataldea webgunean, Pitzintxu liburu-dendan edota lehiatilan bertan eskuratu ahal dituzue. Emanaldia 20:30ean hasiko da.

Salgai daude Biraka Dantzaren jaialdirako sarrerak

Ametsak izeneko jaialdia eskainiko du Biraka Dantzak-ek, ekainaren 12an eta 13an Elgoibarren (20:00), eta sarrerak salgai daude dagoeneko. Sarrerak Pitzintxu liburu-dendan eskura daitezke, hiru euroan.

Azpeitiarrak nagusitu dira Plazatik Gaztetxerako Elgoibarko kanporaketan

Josu Oiartzabal *Xenpelar* eta Jon Gurrutxaga bikote azpeitiarrak lortu zuten Plazatik Gaztetxerako finalerako txartela, joan zen ostiralean Elgoibarren jokatu zuten kanporaketan. Maddi Ane Txoperena eta Paula Amilbururen kontra jokatu zuten buruz buruko, eta bukaeran, buruz buruko lana kontatuta, zortzi puntuko alde atera zieten. Imanol Uria eta Inazio Vidal sailkatu ziren hirugarrenen, 193 punturekin eta Jon Mikel Mugika eta Aimar Goenaga laugarrenen, 176,5 punturekin. Irabazleak zuzenean sailkatu dira finale-rako eta gainerakoak zapatuan Mutrikun jokatu den saioan zer gertatu zain egon beharko dira.

LANA.....

Eskaera

- Emakumea lanerako prest.
☎ 600 005 160
- Neska arduratsua umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest.
☎ 943 250 296 / 647 031 356
- Emakumea lan bila. Etxeko lanetan esperientzia handia daukat.
☎ 690 064 225
- Emakumea lan bila. Zerbitzari lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia handia.
☎ 943 530 679
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Interna ere bai. ☎ 722 499 586
- Emakume umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Paperak legez ditut. ☎ 680 808 125
- Emakume gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Interna ere bai. Paperak legez ditut.
☎ 631 463 492
- Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna edo orduka.
☎ 625 895 460
- Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko prest. Interna ere bai.
☎ 687 362 773
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Garbiketara ere egingo nitzuke. Interna edo orduka.
☎ 626 052 165
- Emakumea lanerako prest. Sukaldean laguntzeko, nagusiak zein umeak zaintzeko, garbiketarako edo harreran lan egiteko prest.
☎ 608 474 923

- Mutil arduratsua lan bila: ostalaritzan, banaketan, okindegian, salmentan, nagusiak zaintzen edo margolari lanetan esperientzia.
☎ 606 072 354
- Mutila eskaintzen da garbiketara egiteko edo zerbitzari lanetarako. ☎ 682 518 370
- Neska euskalduna eskaintzen da udako oporretan umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua.
☎ 618 814 064
- Emakumea lanerako prest: goizez edo asteburuetan. ☎ 699 232 823
- Emakumea garbiketara egiteko edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. ☎ 653 075 865
- Emakumea lan bila. Autoa daukat, eta baserri lanetan esperientzia. ☎ 632 608 870
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Erreferentzia onak. ☎ 683 378 981
- Emakumea sukaldari, harrera edo zaintzaile lanetarako prest. ☎ 608 474 923
- Emakumea garbiketara lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 662 267 141
- Emakumea etxeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 616 457 254
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest.
☎ 672 834 085
- Gizonezkoa adinekoak zaintzeko prest.
☎ 631 361 762
- Ingeles eta aleman klaseak ematen dira ekainean eta uztailan. Talde txikiak.
☎ 685 784 989
- Ingeles partikularrak, adin eta maila guztiak. Azterketa ofizialerako prestakuntza, bussines English... talde txikiak.
☎ 680 858 550 / 943 741 594

Eskaintza

- 3. mailako ikasle bati klase partikularrak emateko pertsona behar da, uztailerako. Goizez.
☎ 677 449 458 (Itziar)

ETXEBIZITZAK.....

- Etxea alokatzen dut Ubitarte plazan. Dena bertuta. ☎ 943 742 442
- Buhardilla alokagai. 2 logela, sukalde, egongela, komun konpletoa, igogailua. ☎ 616 111 603

GARAJEAK.....

- Garajea salgai Debako hondartzan.
☎ 648 203 775
- Garaje itxia alokatzen dut Ikastola ondoan.
☎ 943 531 648 / 669 916 148

KINTOAK.....

- 1963ko kintoen bazkaria Mendaron, ekainaren 22an. 13:00etan batuko dira plazan, eta gero, Landa jatetxean bazkalduko dute. 75 euro sartu behar dira maiatzaren 31rako, Kutxabankeko kontu honetan: 2095 5054 00 9112639504

BESTELAKOAK.....

- Raclet-Corail karro denda salgai. 2 logela, 140x190. Estalpe itxia jantzigelarekin eta sukalderrako tartea. Ia erabili gabe. Lehen, 1.500 euro; orain, 700 euro.
☎ 686 344 252 (Santi)
- Autokarabana salgai. Fiat Hymer 594. 58.000km. Kaputxina 6 plazakoa. Oso ondo zaindua. 27.500 euro.
☎ 692 979 215 / 653 702 750



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



- Igogailua jartzea aztertzen ari diren eraikuntza bateko lehenengo solairuan bizi naiz. Igogailu hori erabiliko ez badut ere, berdin-berdin ordaindu beharko dut? M.S. Zerbitzu hori ez erabiltzeak ez du esan nahi zerbitzu horren instalazio eta mantenimendu gastuak ordaindu behar ez dituzunik. Izan ere, igogailua eraikuntza horretan bizi zareten guztion elementu komuna da. Legeak zehazten duen gehiengoaren arabera hartu behar dira erabakiak. Horrenbestez, zure partaidetza-kuotaren arabera ordaindu beharko duzu zuk. **Aholkua: Hori da legeak esaten duena, baina praktikan, guztien intereserako diren erabakiak har daitezke.**

- Jabekideen Batzordearen azkeneko batzarrean, garajeetan aireztatzeko sistema berri bat jartzea erabaki da. Ez zen aurreikusitako gai bat. Bizilagun batek aurrekontua aurkeztu zuen, eta onartu egin zen. Zuzena da? P.F. Erabakiek balioztatzea izan dezaten eta legeak ezarritakoaren arabera onartu daitezken, gai-ordenan batzarrean aztertuko diren gai guztiak jaso beharko dira eta etxe jabe guztiei aurrez bidali beharko zaie, gainera, batzarrean eztabaidatuko eta bozkatuko diren gai guztien inguruko informazio tekniko eta legal guztia. Akordio horren kontra egitea legoke, formazko akatsengatik. **Aholkua: Kasu hauetan ezinbestekoak dira gardentasuna, informazioa eta jabeen partaidetza. Egin nahi den horren inguruko hiru aurrekontu aurkeztu behar dira gutxienez.**

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Mikel**, zure bigarren urtebetetzean. Etxekoen partez, muxu bat.



• Zorionak, **Ainhize**, maiatzaren 29an 5 urte egin zenituelako. Familiakoen partez, muxu handi bat.




• Zorionak, **Maialen**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Muxu bat gure printzesari. Etxekoek eta lagunek.



• Zorionak, **Intza**, gaur urtetxoa egin duzulako. Etxekoen, eta bereziki, Haritzen partez.



• Zorionak, **Lorea** zure zazpiarren urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki, aitatxo eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Jon**, bixar urte bat beteko dozulako. Patxo handi bat, etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Lucia** mai-tia, 28an 2 urte bete zenituelako. Jarraitu guapa eta maitagarri izaten. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Karla maitel** Urteko zoragarria pasatu dugu zurekin. Hain alai eta maitagarri... Patxo berezia, Marianen partez.



• Zorionak, **Olaiz**, atzo 5 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxeko printzesari bihotz-bihotzez. Familiakoak.



• Aupa **Maite**, gure txapelduna! Zuk, bai, balio duzula.



• 5+5...10! Zuen bosgarren urtebetetzean, muxu pila bat. Segi horren lagun minak izaten. Zorionak, **Arhane eta June**.



• Zorionak, **bikote**, ailegatu da zuen eguna ere! Patxo handi bana, etxekoen partez.



• Zorionak, **Iago!** Oso ondo pasa genuen zure urtebetetze egunean. Muxu bat guztion partez.



• Zorionak, **Josu eta tia Lorea**, astelehenean 4 urte eta 32 urte betetzen dituzuelako. Familia guztia-aren partez.



• Zorionak, **Aritz eta Naroa**, zuen 8. urtebetetzean. Gaur, ostirala, ospatuko dugu lagunekin. Ondo pasa! Familiakoen partez.



AGURREN ATALEKO PREZIOAK:
Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora,
12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

31 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

Erakusketa

18:30 Ilustrazioak

Iban Barrenetxea elgoibartarraren ilustrazioak ikusteko azken eguna. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Antzerkia

20:30 'Zertarako hegoak'

Berria egunkariaren aldeko antzezlan, Herriko Antzokian.

1 zapatua

Mintza Eguna

11:00 Ongi-etorria eta hamaiketakoa

Maalako parkean.

12:00 Ibilaldi gidatua

13:30 Kalejira

14:30 Bazkaria

16:30 Sari banaketa

17:30 Erromeria

3 astelehena

Jaialdia

19:00 Herri Eskolako jaialdia

Ikasturte amaierako jaialdia, Herri Eskolan.

Jaialdia

19:30 Musika Eskolako jaialdia

Ikasturte amaierako jaialdia, musika eskolan.

4 martitzena

Kafe tertulia

18:30 Gurasoentzako saioa

Euskaraz jakin gabe umeei etxeko lanak egiten laguntzeko saioa. Sotoan.

Jaialdia

19:00 Herri Eskolako jaialdia

Ikasturte amaierako jaialdia, Herri Eskolan.

Jaialdia

19:30 Musika Eskolako jaialdia


Ikasturte amaierako jaialdia, musika eskolan.

6 eguena

Dokumentala


21:30 'Bajo cero'

Alex Txikon mendizaleak aurkeztuko du, Arnaldo askatu plataformak eta Morkaikok antolatuta, Herriko Antzokian.



Udako irteerarako izenemateak ekainaren 1etik 22ra arte

Igande honetan ordezkarien asanbladak izango dira. 16:30ean 15 urtetik gorakoenak eta 18:00etan, 13 - 15 urte bitartekoenak.



OKINDEGIA	BOTIKA ORDUTEGIAK	GUARDIAK	Egunez	Gauetz
2 domeka: EIZAGIRRE	9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00		9:00 - 22:00	22:00 - 9:00
	Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)- Tel: 943 756 142		31 Etxeberria 1 Fernandez Goizez: Etxeb.	Etxeberria Etxeberria
	Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638		2 Fernandez 3 Yudego	Etxeberria Yudego
	Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384		4 Zabaleta 5 Etxeberria 6 Ibañez 7 Garitaonandia	Yudego Etxeberria Barrenetxea Garitaonandia



ESKERTZA

SOLEDAD IÑIGUEZ AGUIRRE

2013ko maiatzaren 23an hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

JESUS HOYOS PEDROSA

2013ko maiatzaren 25ean hil zen, 67 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

SEBASTIAN LEYARISTI GARATE

2012ko maiatzaren 31n hil zen.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainak 1,
arratsaldeko 19:00tan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



MANUELA ANSOLA AYERDI

*"Argi bat itzali da
hemen lurrean
berri bat piztu da
han zeru ederrean
beti jarraituko duzu
gure bihotzean".*

II. URTEURRENA

2011ko ekainaren 1ean hil zen, 62 urte zituela.



I. URTEURRENA

JOSEBA BILBAO GARATE

*Ekainak 4, duela urtebete
halako egun latzik
gorputz barnea geratu zitzaigun
minduta eta biluzik
egun hortatik izar berri bat
zeruan dago pizturik
Joseba, bihotzez, agurrik ez
gero arte baizik.*

2012ko ekainaren 4an hil zen.

Koadrilakoak



Maala

KAFETEGIA

Pedro Muguruza, 5

Tel.: 943 257 421



Egunero 8:00etatik aurrera zabalik
Igande eta jai egunetan 9:00etatik aurrera zabalik

GOSARIAK EGUNEKO MENUA 9€

Pintxoak
Bazioak
Entsaladak
Sandwich-ak
Mexikarrak
Hanburbesak
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Egunero edozein ordutan

ENKARGUZ:

- ▶ MENU BEREZIAK
- ▶ LUNCH-ak
- ▶ ZURE KINTOETAKO OTORDUA
ANTOLATZEN DIZUGU
- ▶ OSPAKIZUNAK
- ▶ ...